

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
02. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	07. Ingurumen-Azpiegiturak	456.116 Ingurumen-Azpiegiturak
02. Sostenibilidad y Medio Natural	07. Infraestructuras Ambientales	456.116 Infraestructuras Ambientales

Honako programa honen helburua da Bizkaiko Foru Aldundiak ingurumeneko inbertsioak egiten laguntzea arlo horretan udalek dituzten eskumenen eraginkortasuna bermatu ahal izateko.

Este programa tiene por objeto la cooperación de la Diputación Foral de Bizkaia con los municipios del territorio en la ejecución de inversiones en materia de medio ambiente, a fin de garantizar la efectividad de las competencias municipales en esta materia.

1.- Ingurumen kudeaketa

1.- Gestión Ambiental

Programa honetan garatu beharreko helburuak eta ekintzak Nazio Batuek eta Europar Batasunak hondakinen kudeaketari buruz prestatu dituzten printzipio eta zehaztapenetan oinarritzen dira.

Los objetivos y las acciones a desarrollar en este programa se fundamentan en los principios y determinaciones que sobre gestión de los residuos han elaborado las Naciones Unidas y la Unión Europea.

Bizkaiko Foru Aldundiak jasagarritasunean oinarritzen den hiriko hondakinen kudeaketaren aldeko apustua egiten du, hau da, horietan biltzen diren baliabideak eta bitartekoak ahalik eta gehien aprobetxatzeko ahalegina egiten duena hondakinen kudeaketaren aukeren arloko erkidegoaren hierarkiarekin bat.

La Diputación Foral de Bizkaia apuesta por una gestión de los residuos urbanos orientada a la sostenibilidad, que intente aprovechar al máximo los recursos contenidos en los mismos de acuerdo con la jerarquía comunitaria de opciones de gestión de los residuos.

Hondakinen kudeaketari dagokienez, helburu nagusia honako aukeren hierarkia-escala hartzen du bere gain: hondakinak kudeatzeko (ahal den neurrian, hondakinak sortzea saihesteko), hondakinak sortu ondoren dauzkaten baliabideak ahalik eta gehien balioztatzeko eta ahalik eta gutxien isurtzeko.

En materia de gestión de residuos el objetivo prioritario es el cumplimiento de la escala jerárquica de opciones de gestión, consistente en prevenir al máximo su generación, de valorizar al máximo los recursos que contengan una vez generados, y de verter el mínimo posible, siempre con las máximas garantías medioambientales.

Bizkaiko Hondakinen Tokiko Eskumeneko Kudeaketaren xedea herritarrei kalitatezko zerbitzua ematea da, Bizkaiko Lurralde osoan ahalik eta kosturik bateratuena eskainita eta ingurumena babesteko mailarik handiena izanda. Horri esker, indarreko araudian ezarritako eskakizunak eta ingurumenaren garapeneko irizpideak beteko dira.

La gestión de Residuos de Competencia Local de Bizkaia tiene como objetivo lograr que se proporcione a los ciudadanos un servicio de calidad y coste lo más homogéneo posible en todo el Territorio Histórico de Bizkaia y con los máximos niveles de protección medioambiental que permitan el cumplimiento de las exigencias de la normativa vigente y los principios de desarrollo sostenible.

Hondakinen kudeaketa osorako helburuak betetzeko, honako aukera estrategiko hauek hierarkikoki aplikatu beharra dago ezinbestean:

Los objetivos a cumplir para una gestión integral de los residuos pasan por la aplicación jerarquizada de las siguientes opciones estratégicas:



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
02. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	07. Ingurumen-Azpiegiturak	456.116 Ingurumen-Azpiegiturak
02. Sostenibilidad y Medio Natural	07. Infraestructuras Ambientales	456.116 Infraestructuras Ambientales

- Prebentzioa maximizatzea (murriztu eta berrerabili).
- Balorazioa maximizatzea (materialak eta energia birziklatzea).
- Aprobetxamendurik ez duten hondakinak (isuriak) minimizatzea.

Hondakinen kudeaketan prebentzioa, hondakin moten berrerabilera eta horien birziklapena indartu dira, Europako zuzentzaruen arabera. Gehienbat lehentasunezko bi jarduketara ildotzen gaizatu da hori:

1. Herritarrek edukiontzi espezifikotan utzitako etxeko hondakin zati txikiak berrerabiltzeko prestakuntza bultzatuko da, arropa zatiak, oinetakoak, osagarriak, liburuak, jostailuak, etxeko tresnak eta etxeko aparatu elektriko eta elektroniko txikiak uzteko. Hartara, hondakinak ez sortzeko prebentzioa sustatu da, Hondakinen Eremu Zuzentzarauarekin eta *Ekonomia Zirkularraren Paketea* deritzonaosatzen duten zuzentzarauarekin bat.
2. Hondakin biodegradagarrien bilketa selektiboa bultzatuko da, konposta egiteko. Horretarako bosgarren edukiontzi pertsonalizatua jarriko da eta horri buruzko informazioa zabaltzeko plana abiatuko da eskatuko duten Lurraldeko udalerrietan.

Programak hondakinen arloan duen jardueraren ekintza hauetan laburbil daiteke:

- Hondakinak eraginkortasunez kudeatzeko diru-laguntzen programa kudeatzea. Aurten ere, 2022an, jarraipena eman zaio udalei eta mankomunitateei tokiko eskumeneko hondakinen kudeaketaren arloan diru-laguntzak emateko programari, kudeaketa

- Maximizar la prevención (reducción y reutilización)
- Maximizar la valoración (reciclaje material y energético).
- Minimizar la eliminación sin aprovechamiento (vertido)

Se potencia la prevención en la gestión de residuos, la reutilización de las fracciones de residuos y el reciclaje de los mismos de acuerdo con las Directivas Europeas. Ello se materializa principalmente en dos líneas de actuación prioritaria:

1. Se impulsa la preparación para la reutilización de las fracciones de residuos domésticos de pequeño tamaño depositados por los ciudadanos en contenedores específicos para el depósito de las fracciones de ropa, calzado, complementos, libros, juguetes, bazar y pequeños aparatos eléctricos y electrónicos, fomentando la prevención en la generación, de acuerdo con la Directiva Marco de Residuos y las Directivas que conforman el denominado *Paquete de Economía Circular*.
2. Se potencia la recogida selectiva y reciclaje de residuos biodegradables para su transformación en compost, mediante la instalación del quinto contenedor personalizado, en los municipios y mancomunidades del territorio que lo soliciten.

La actividad del programa en materia de residuos puede resumirse en las siguientes acciones:

- Gestión del Programa de subvenciones para la gestión eficaz de los residuos. Un año más, en 2022 se ha dado continuidad al programa de subvenciones en materia de gestión de residuos de competencia local a los Ayuntamientos y Mancomunidades para el



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
02. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	07. Ingurumen-Azpiegiturak	456.116 Ingurumen-Azpiegiturak
02. Sostenibilidad y Medio Natural	07. Infraestructuras Ambientales	456.116 Infraestructuras Ambientales

eraginkorra sustatzeko. 36 eskabide aurkeztu ziren, eta guztiei eman zitzaizen diru-laguntza.

- 2022ko ekitaldian Garbiker geure bitartekoari agindu zitzaion lan berriarekin jarraitu zen, tokiko eskumeneko hondakinak kudeatzeko zerbitzua eskaintzeko.
- Urteko Hondakinen Behatokiko txostena idaztea. Hondakinen Behatoki bitartez Bizkaian sortutako hiri hondakinak aurkitu, sailkatu eta kuantifikatzen dira. Etxeko hondakinak (EH) eta komertzioetako hondakinak (KH) sailkatu, kokatu eta kuantifikatzen dira; horien kudeaketa tokiko erakundeei dagokie.
- Azpiegitura linealen betelanak egiteko proiektuen jarraipena egin da, 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda deuseztatzea arautzen duena, dela bide.

Araudiari dagokionez, 2022an amaitu da parte-hartze publikoaren prozesua, eta ingurumen-izapidetzeari ekin zaio Bizkaiko Tokiko Eskumeneko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030 Plana idazteko prozesuan. Prozesu hori amaitu da udalerrien % 91k parte hartuta lurralde historikoko eskualdeetan egindako 11 topaketetan. Ekarpinak jaso ondoren, planaren zirriborroa jendaurrean jarri zen Planen eta Programen Ohiko Ebaluazio Estrategikoaren prozeduraren barruan, eta aipaturiko prozesu hori 2023. urtera arte luzatuko da.

Garbiker bitarteko propioarekin mantentzen den lankidetzaz-esparruaren barruan, lankidetzaz teknikoak egin dira Artigasko zabortegean egindako zenbait obra eta inbertsio zuzentzeko.

fomento de una gestión eficaz al que se presentaron 36 solicitudes, concediéndose la subvención a todos ellos.

- En el ejercicio 2022 se realizó un nuevo encargo al Medio Propio Garbiker para la prestación de los servicios de gestión de residuos de competencia local.
- Confección del Informe Anual relativo al Observatorio de Residuos. Mediante el Observatorio de Residuos, se localizan, se clasifican y se cuantifican los residuos generados en Bizkaia. Se realiza la clasificación, localización y cuantificación de los residuos domésticos (RD) y residuos Comerciales (RC) cuya gestión corresponde a los entes locales.
- Seguimiento de los proyectos de relleno de infraestructuras lineales en base al Decreto 49/2009, de 24 de febrero por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y la ejecución de los rellenos.

En lo referente a la normativa, en el año 2022 se ha culminado el proceso de participación pública y ha comenzado la tramitación ambiental en la redacción del Plan de Prevención y Gestión de Residuos de Competencia Local de Bizkaia 2030. Este proceso ha culminado con la participación del 91% de los municipios en 11 encuentros celebrados en las diferentes comarcas del territorio histórico. Una vez recogidas las aportaciones, el documento borrador del plan, se sometió a Información Pública dentro del procedimiento de Evaluación Estratégica Ordinaria de Planes y Programas, y dicho proceso se prolongará a 2023.

Dentro del marco colaborativo que se mantiene con el medio propio Garbiker, se han realizado colaboraciones técnicas para la dirección de ciertas obras e inversiones realizadas en el Vertedero de Artigas.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
02. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	07. Ingurumen-Azpiegiturak	456.116 Ingurumen-Azpiegiturak
02. Sostenibilidad y Medio Natural	07. Infraestructuras Ambientales	456.116 Infraestructuras Ambientales

Era berean, hainbat azterlan egin dira Ortuellako Orkonera zaborteziaren inguruan, Garbikerreko lurretan erori zen lurpeko galeria bat konpontzeko. Proiektua 2023. urtean gauzatuko da.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak eskatuta, Garbikerreko hondakindegia batzuen egonkortasunari buruzko azterlanak idatzi dira.

1.1. Ura

Uren arloan, 2022ko ekitaldian zehar, azpiegitura hidraulikoak eta uren hornidurarako eta saneamendurako oinarritzko sareak egiten jarraitu da Bizkaian.

Hala, 2022. urtean, 2008tik 2021era bitartean, Bilbao Bizkaia Ur Sailburuordetzarekin azpiegiturak eraikitze indarrean egon zen diru-laguntzen jarraipena egiteko, Bilbao Bizkaia Ur Babesletzari 19 milioi euroko diru-laguntza ematea erabaki zen, hornidura eta saneamenduaren arloan inbertsioak finantzatzeko. Hitzarmen honen lehenengo urteko ordainketa 2023. urteari dagokiona izango da.

Horniduraren arloan, Karrantzako EUTeren prebentziozko mantentze-lanekin jarraitu da, entregatu eta zerbitzuan jarri arte.

1.2.- Hondartzak

Ekitaldi honetan, Bizkaiko kostaldeko 28 hondartzak garbitzeko egunero egiten diren lanekin jarraitu dugu.

Asimismo en dicho marco, se han llevado a cabo diferentes estudios en el entorno del vertedero de Orkonera en Ortuella, con el fin de reparar una galería subterránea que colapsó en los terrenos de Garbiker. Este proyecto se ejecutará en 2023.

De igual modo, a petición del Gobierno Vasco, se ha procedido a la redacción de estudios de estabilidad en algunos de los vertederos de Garbiker.

1.1. Aguas

En materia de aguas, durante el ejercicio 2022 se ha continuado con la construcción de las infraestructuras hidráulicas y las redes primarias de abastecimiento y saneamiento de aguas en Bizkaia.

Así en 2022, dando continuidad al convenio de subvención para la construcción de infraestructuras que se mantuvo vigente con el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia entre los años 2008 y 2021, se acordó la concesión de una subvención al Consorcio de aguas Bilbao-Bizkaia para la financiación de inversiones en materia de abastecimiento y saneamiento por valor de 19 millones de euros. La primera anualidad efectiva de este acuerdo será la correspondiente al 2023.

En materia de abastecimiento, se ha continuado con el mantenimiento preventivo de la ETAP de Karrantza hasta su entrega y puesta en servicio.

1.2.- Playas

Durante este ejercicio se ha continuado con los trabajos de limpieza llevados a cabo diariamente en las 28 playas que configuran el litoral vizcaíno.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
02. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	07. Ingurumen-Azpiegiturak	456.116 Ingurumen-Azpiegiturak
02. Sostenibilidad y Medio Natural	07. Infraestructuras Ambientales	456.116 Infraestructuras Ambientales

Garbiketa zerbitzuak urte osoan ekipo mekaniko sofistikatu batekin lan egin du urte osoan, eta horri esker, itsasertz bizkaitarra zeharo garbitzea lortu dute. Bestalde, udan denboraldiko hondartzek ekipamendu osoa dute.

Beste urte batez, salbamendu eta sorospen zerbitzua finantzatu eta kudeatu dira Bizkaiko hondartzetan. Horrela, giza baliabideak eta materialak hornitu dira, hondartza bakoitzaren behar eta berezitasunen arabera.

Udaldian hondartzainen zerbitzua kudeatzen da Bizkaiko itsasertzeko hondartzetan, hondartzak zaintzeko eta bainulariei laguntzeko.

2022. urtean, Aldundiak bere egin zuen bainu lagunduaren zerbitzua, eta, gainera, zerbitzua emateko egutegia irailera zabaldu zuen. Zerbitzu hori Bizkaiko honako hondartza hauetan ematen da: La Arena, Ereaga, Plentzia, Laidatxu, Lekeitio (Isuntza) eta Ondarroa.

Berrikuntzari dagokionez, Kosta System programari jarraipena ematen zaio. Horren bidez, itsasertzeko dinamika monitorizatzen da zenbait hondartzatan bideometriaren bidez.

Aurrekoaz gain, hondartzetarako ekipamendua hobetu eta berritu egin da elementu berriekin: megafonia, karpak, SOS etxola modulua, hondartzei buruzko kartel berriak, dutexak, pasabide malguak, zurezko pasabideak eta komun-ontzi autogarbigarriak. Ekitaldi honetan garrantzi berezia hartu du lagundutako bainua emateko materiala erostek: aulki arina, aulki arinerako arnesak, uretako aulkia, txalekoak, taka-takak, transferentzietarako garabia, transferentzia-zingirak, karpak eta armairuak.

El servicio de limpieza se ha realizado, durante todo el año consiguiendo una óptima limpieza de las diferentes playas que configuran el litoral bizkaíno. Por su parte, en época estival las playas cuentan con un completo equipamiento de temporada.

Un años más, se ha financiado y gestionado el servicio de socorrismo en las playas de Bizkaia, dotando de medios humanos y materiales según necesidades y peculiaridades de cada playa.

Se gestiona durante la época estival el servicio de hondartzainas, distribuidos en las playas del litoral bizkaíno, para la vigilancia de las playas y ayuda a los bañistas.

En 2022 la Diputación ha asumido como propio el servicio del baño asistido, ampliando además el calendario de prestación al mes de septiembre. Este servicio se presta en las playas bizkaínas de: La Arena, Ereaga, Plentzia, Laidatxu, Lekeitio (Isuntza) y Ondarroa.

En materia de innovación se da continuidad al programa Kosta System por el que se monitoriza la dinámica litoral en ciertas playas a través de videometría.

Adicionalmente a lo anterior, se ha mejorado y renovado el equipamiento destinado a las playas con nuevos elementos de: megafonía, carpas, modulo caseta SOS, nuevos carteles información playas, duchas, pasarelas flexibles, pasarelas de madera y WC autolimpiables, cobrando especial relevancia en este ejercicio la adquisición de material para la prestación del baño asistido: Silla ligera, arneses para silla ligera, silla anfibia, chalecos, andadores, grúa para transferencias, cinchas transferencia, carpas y taquillas.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
02. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	07. Ingurumen-Azpiegiturak	456.116 Ingurumen-Azpiegiturak
02. Sostenibilidad y Medio Natural	07. Infraestructuras Ambientales	456.116 Infraestructuras Ambientales

2022ko denboraldiko beste berritasun bat, bainu lagundurako ekipamendu berriarekin batera, hondartzetako sarbideetan paperontzi adimendunak jartzea izan da.

Emandako zerbitzuen kalitateari dagokionez, beste urte batez BFAko hondartzen Zerbitzuen Gutuna berrikusi da, non honako hauek barne hartzen diren: emandako zerbitzuak, eskuratutako konpromisoak eta kalitate hori egiaztatzeko ezarritako batez besteko sistemak. Bizkaiko hondartzetako erabiltzaileek 8,61eko nota eman diete, hondartzan bertan egindako gogobetetze-inkestaren emaitzen arabera.

Hondartzetako digitalizazioaren arloko berrikuntza gisa, nabarmentzekoa da 2022. urtean, Bizkaiup aplikazioaren bidez, lagundutako bainua emateko zistak erreserbatzeko zerbitzu bat abiarazi zela.

1.3.- Ingurumen lehengoratzea

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak garatzen dituen atalen artean ingurumena lehengoratu eta aisialdi eremuei eustea dago, zerbitzu eta ekipamenduen zuzkidurarekin.

2022ko ekitaldian zehar Ingurumen Foru Zuzendaritzaren mende dauden 75 area eta parke garbitzeko, zaintzeko eta mantentzeko lanak egiten jarraitu da, egoera txarrean dauden altzariei erantzunez eta egungo ekipamenduak hobetuz.

Eremuetako ekipamendu berrien artean, haurrentzako jolasak nabarmendu behar dira. Barne-auditoriako prozesu baten ondoren, egiaztatu diren hainbat multzo ordeztu dira.

Aisialdirako eremuak garbitzeko eta mantentzeko lanak agindu zaizkio Basalan, M. P. S. A. sozietate publikoari.

Otra novedad de la temporada 2022, junto con el nuevo equipamiento para el baño asistido ha sido la disposición de papeleras inteligentes en los accesos a las playas.

Con relación a la calidad de los servicios prestados, un año más se ha revisado la *Carta de Servicios de las playas de DFB*, donde se detallan los servicios prestado, los compromisos adquiridos, y los sistemas de medida establecidos para comprobar dicha calidad. Las personas usuarias de las playas de Bizkaia les dan una nota de 8,61, conforme a los resultados de la encuesta de satisfacción realizada a pie de playa.

Como innovación en materia de digitalización en playas, cabe destacar que en 2022, a través de la aplicación Bizkaiup se lanzó un servicio para la reserva de cistas en la prestación del baño asistido.

1.3.- Recuperación ambiental

La recuperación ambiental y el mantenimiento de áreas de esparcimiento, con la dotación de equipamientos y servicios, es una de la áreas que se viene desarrollando desde el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural.

Durante el ejercicio 2022 se ha continuado con los trabajos de limpieza, mantenimiento y conservación de las 75 áreas que dependen de la Dirección de Medio Ambiente, reponiendo el mobiliario deteriorado y mejorando los equipamientos disponibles.

Entre los nuevos equipamientos de las áreas hay que destacar los juegos infantiles. Tras un proceso de auditoría interna, se ha llevado a cabo la sustitución de varios conjuntos que además han sido certificados.

Se encarga a la sociedad pública Basalan, M. P. S. A. la prestación de los trabajos de limpieza y mantenimiento de las áreas de esparcimiento.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
02. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	07. Ingurumen-Azpiegiturak	456.116 Ingurumen-Azpiegiturak
02. Sostenibilidad y Medio Natural	07. Infraestructuras Ambientales	456.116 Infraestructuras Ambientales

Mantentze-lan horiek bi modutan egiten dira:

Alde batetik, existitzen diren landaredia espezieak moztu eta kimatzeko lanak daude, landaredia arrastoak garbitu eta kentzea, lurzoruan eta zakarrontzietan erabiltzaileek utzitakoak batu eta kentzea, zerbitzu publikoen eraikinak garbitu eta egokitzea, baita sortutako hondakinak batu eta kudeatzaile baimendura garraiatzea ere.

Bestalde, hiri altzariak zaindu, konpondu eta mantentzeko lan zehatzak daude, aisialdi esparruetan dauden altzariei dagozkien konponketa lanak, esaterako: mahaia, jesarlekuak, zakarrontziak, burdinurtuko iturriak, haur jolasak, zurezko pasabide txikiak, informazio panelak, metalezko edo egurrezko baranden itxiturak, barbakoa parrilak, ur instalazioak, saneamendua, elektrizitatea, etab.

Zerbitzu horren digitalizazio-proiektu gisa, nabarmentzekoa da intzidentziak kudeatzeko 2022. urteko barne-aplikazioa, Basalan bitarteko propioak arlo horietan egiten dituen esku-hartzeen jarraipena hobetzeko.

Aisiarako eremuen barruan egindako jarduketa bereziei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

- Gorliz eta Akarlandako espazioetan inausketa selektiboak eta oinak birjartzea. Haizeak eragindako istripuak saihesteko eta espezieak birlandatzea saihesteko prebentziozko inausketak.
- Akarlanda eta Montefuerteko, Gorlizko pinudiko, San Antonio hondartzako, Elorritxueta-El Vivero hondartzako, Artatzako eta Toñako haur-jolasak ordeztzea.

Estos trabajos de mantenimiento se materializan de dos maneras:

Por un lado están las labores de siega y poda de las especies vegetales existentes, limpieza y retirada de restos vegetales, recogida y retirada de restos dejados por las personas usuarias en el suelo y papeleras, limpieza y acondicionamiento de edificios de servicios públicos, así como la recogida y transporte a gestor autorizado de los residuos generados.

Por otro lado, los trabajos específicos de mantenimiento, reparación y conservación de mobiliario urbano, los trabajos de reparación se refieren al mobiliario existente en las áreas de esparcimiento, como son: mesas, bancos, papeleras, fuentes de hierro fundido, juegos infantiles, pequeñas pasarelas de madera, paneles informativos, cierres barandillas de madera o metálicas, parrilas de barbacoas, instalaciones de agua, saneamiento, electricidad, etc.

Como proyecto de digitalización en este servicio cabe destacar la aplicación interna de gestión de incidencias que se ha desarrollado en 2022 con el fin de mejorar el seguimiento de las intervenciones en las áreas por parte del medio propio Basalan.

Como actuaciones singulares dentro de las áreas de esparcimiento cabe destacar las siguientes:

- Realización de podas selectivas y reposición de pies en los espacios de Gorliz y Akarlanda. Podas preventivas que eviten accidentes con episodios de viento y replantación de especies.
- Sustitución de los juegos infantiles en el área de Akarlanda y Montefuerte, Pinar de Gorliz, Playa de San Antonio, Elorritxueta- El Vivero, Artatza y Toña.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
02. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	07. Ingurumen-Azpiegiturak	456.116 Ingurumen-Azpiegiturak
02. Sostenibilidad y Medio Natural	07. Infraestructuras Ambientales	456.116 Infraestructuras Ambientales

- Piknik multzo berriak (mahaiak eta bankuak) Akarlanda-Erandion eta Las Baterias-Getxon.
- Foru errepideetan kartelak jartzea honako hauek seinaleztatzeko: La Muera, Zugastieta, Atxuriaga, Balugako Baltsak, Rebortun, Siete Robles, Aldazitala, Lasiar, Zumeltza, Zumeltza Gruta, El Cerrillo, Bolunburu, Montefuerte, Santa Eufemia, Jata eta Barrika.
- Informazio-kartelak jartzea eremu hauetan: Akarlanda, Artatza, Bolunburu, Elorritxueta - El Vivero, Meaztegi Berdea, Montefuerte eta Gorlizko Pinudia.
- Akarlanda-Erandio eta Santarena-Busturia eremuetako sarbideak finkatzea/zolatzea.
- Akarlanda-Erandioko rokodromoa berritzen hastea.

Montefuerteko hornidura-sarea berritzeko lanak hasi dira. Sare horretan, sareaz gain, iturriak berritu eta sute-ahoak jarriko dira.

Gaztelugatxen, II. faseko obrak egin dira, hau da, eskalinatako hainbat zati konpondu dira, haien egiturazko segurtasuna ez baitzegoen egoera egokian.

Bidezidorrei eta bideei dagokienez, Lezamako Bide Zaharrean Bide Berdea eraikitze proiektua idazten amaitu da. Indarrean dagoen legeria aplikatuta, proiektu horri ingurumen-ebaluazio sinplifikatua egin zaio. Izapidea 2022ko ekitaldia amaitu arte luzatu da. Horrenbestez, ez da 2023. urtera arte hasiko.

- Nuevos conjuntos de picnic (mesas y bancos) en Akarlanda-Erandio y Las Baterias-Getxo.
- Señalización de áreas mediante nueva carteleria en las carreteras forales para la señalización de: La Muera, La Arboleda, Atxuriaga, Las Balsas de la Baluga, Rebortun, Siete Robles, Aldazitala, Lasiar, Zumeltza, Zumeltza Gruta, El Cerrillo, Bolunburu, Montefuerte, Santa Eufemia, Jata y Barrika.
- Disposición de carteles informativos de las áreas de Akarlanda, Artatza, Bolunburu, Elorritxueta - El Vivero, Meaztegi Berdea, Montefuerte y Pinar de Gorliz.
- Afirmado/Pavimentado de los accesos de las áreas de Akarlanda-Erandio y Santarena-Busturia.
- Inicio de la renovación del Rocódromo de Akarlanda-Erandio.

Se han dado inicio a las obras de reposición de la red de abastecimiento de Montefuerte, donde además de la propia red se repondrán las fuentes y se dispondrán hidrantes.

En Gaztelugatxe se han llevado a cabo las obras de la denominada Fase II, consistentes en la reparación de diferentes tramos de la escalinata cuya seguridad estructural no se encontraba en condiciones adecuadas.

En lo referente a senderos y caminos se ha finalizado la redacción del proyecto constructivo de Vía Verde sobre la Vía Vieja de Lezama. En aplicación de la legislación vigente, este proyecto se ha sometido a Evaluación Ambiental simplificada. Este trámite se ha alargado hasta el término del ejercicio 2022, luego su ejecución material no se iniciará hasta 2023.



Sail Egitarau Txostena - GASTUAK Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
02. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	07. Ingurumen-Azpiegiturak	456.116 Ingurumen-Azpiegiturak
02. Sostenibilidad y Medio Natural	07. Infraestructuras Ambientales	456.116 Infraestructuras Ambientales

Bide eta ibilbide berriak identifikatzeari dagokionez, Arabarekiko lotura landu da Aiara Haranean, betiere Urduñako (Arrankudiaga) Aiarako Parke Linealarekin lotzeko bideak aztertuzta Urduñan, Arrankudiagan, Arakaldon eta Ugaon.

2.- Hidrologia

Hidrologiaren arloan, 2020ko irailean foru-sarearen estazio hidrometeorologikoak URari lagatzeko hitzarmena sinatu ostean, Agentziari zerbitzuari lotutako mantentze-kontratuen subrogazioa egin da, Bizkaiko Ibaien Kalitatearen eta Memoria Hidrometeorologikoaren Urteko Lana idaztea izan ezik. Kontratu hori 2021eko abenduan amaitu da. 2022. urtean bukatu egin dira egiteke dauden kontratu guztiak.

Beste alde batetik, estazioak Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari atxikitako foru-ondarearen barruan daudenez, estazioetan arriskuak ebaluatzeko azterketa-lana egiten jarraitzen du, URAk eskatuta.

En cuanto a la identificación de nuevos senderos y rutas, se ha trabajado la conexión con Araba en el Valle de Ayala, analizando senderos de conexión con el denominado "Parque Lineal de Aiara", en los municipios de Orduña, Arrankudiaga. Arakaldo y Ugao-Miraballes.

2.- Hidrología

En materia de Hidrología, tras la firma en septiembre de 2020 del acuerdo de cesión de las estaciones hidrometeorológicas de la red foral a URA, se lleva a cabo la subrogación de los contratos de mantenimiento asociados al servicio a la Agencia, con excepción del referente a la redacción de la *Elaboración Anual de la Memoria Hidrometeorológica y de Calidad de los Ríos de Bizkaia*; este contrato se finaliza en el mes de diciembre de 2021. En 2022 ya se han finalizado todos los contratos pendientes.

Por su parte, y dado que las estaciones siguen formando parte del patrimonio foral adscrito al Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, el Servicio de Prevención, a solicitud de URA, continúa desarrollando el trabajo de revisión de la Evaluación de los Riesgos en las estaciones.